

Atal honetan harreman bideak nola eraikiko ditugun zehaztuko dugu, hau da, hasiera batean jendartera nola hurbilduko garen adieraztea. Sare hauek proiektua aurkezteko eta gizartean ezagutarazteko erabilgarriak izango dira. Gure kasuan, bi kanal mota erabiliko ditugu: alde batetik, komunikazio-kanalak eta bestetik, salmenta-kanala.

Komunikazio-kanalei dagokienez, gure kasuan webgunea eta sare sozialak, bezeroekin harremanetan jartzeko eta beste elkarrekin komunikatzeko erabiliko ditugu. Hortaz gain, eskaintzen ditugun zerbitzuen berri emateko eta proiektua Durangaldean ezagutarazteko ere erabiliko ditugu.

Webgunean, elkarrearen azalpen txikitxo bat erantsita joango da, hala nola, nortzuk garen, proiektua zertan oinarritzen den, sorreraren zergaitia eta garrantzia, zer eskaintzen dugun... aipatuz. Azken finean, proiektua kokatzen laguntzeko azalpenez hornitua egongo da. Aurrera eramango ditugun ekintzak ere argitaratuko dira bertan eta modu honetan, bezeroek gustuko ekintzak aukeratu ditzateke: piragua, mendira joan, hondartza... Baimena izan ezker, ekintzetan ataratako argazkiak publikatuko ditugu. Gurekin harremanetan jartzeko helbidea eta telefono zenbakia bertan agertuko dira, zalantza bat edota izena eman nahi ezker mezu bat bidaltzeko edota gure bulegora hurbiltzeko.

Sare Sozialekin jarraituz, Instagrama izango da erabiliko duguna. Azken finean, gazte guztien eskura dagoen aplikazio bat da. Modu honetan gazteen artean informazioa erraz zabaltzen dela ahalbideratuko dugu. Honekin ere, beste elkarrekin harreman gaitzke eta bide batez, publizitatea egin, hau da, webgunean argitaratuko ditugun gauzak bertan ere itsatsiko ditugu argazkiak, ekintzak...



Salmenta-kanalei dagokienez, bezeroekin egingo ditugun ekintzetatik sortzen diren eskulanak salduko ditugu; adibidez, pultserak, belarritakoak.... Salmenta kanal hori, kanal propioa eta zeharkakoa izango da.

Kanal propioa, web atariaren bitartez, langileok arduratuko gara gure produktua azken bezeroari helarazteaz, bitartekaririk gabe. Sortutako materialak webean ikusgai jarriko ditugu, egindakoa modu hurbil eta bero batean erakusteko eta transmititzeko. Modu honetan, parte-hartzaileen gurasoak zein familia testigu izango dira seme-alaben ekintzetaz, lorpenaz... Era berean, erosteko aukerarekin.

Bestalde, gure produktuak zeharkako kanala bitartez zabalduko ditugu, hau da, bitartekari bat edo gehiagoz baliatuz, honela, herritarrek ere erosteko aukera izango dute.

Baina, nola bermatuko dugu aurrekoa? Batik bat, beste denda batzuetan, beti ere Durangaldean fokoa jarritz, gure produktuak eskainiz eta diru baten truke bertan salduz. Dendak beraien produktuak saltzeaz gain, gureak ere salmentan jarriko dituzte. Adibidez, *Durangoko Herri Denda*, komunitatetik eta elkar lanetik sortu dena eta gure balorekin bat egiten duena. Hortaz gain, Durangoko Azoka ospatzen denean, postu txikitxo bat jartzen dute, zeinetan gure eskulanak Durangaldetik baino haratago zabaltzeko aukera izango dugun.